

KONTUZ ALDATZEN

Bermeoko Udala

IRAGARKIA

Bermeoko Udal Osoko Bilkurak 2001eko otsailaren 28an hartutako erabakia dala eta, A.P.K.L.-ren 78. artikulua agindutakoa betetzeko, «Nestor Basterretxea» Kultur Aretoaren Barne Araudiaren hasierako onespena iragartzen da.

«NESTOR BASTERRETXEAA» UDAL KULTURA ARETOA

ERABILERARAKO ARAUDIA

1. artikulua.— Jabetza eta gozamena

«Nestor Basterretxea» Kultura Aretoa udal jabetzakoa da, bai bere ondasun higikor eta baita higiezinetan ere. Areto honen gozamena daukana, beronen ezaugarri tekniko eta materialei egokitu beharko da, honen erabilera txarrak edo arduragabekeriak eragin leikezan gastuak berak ordainduz.

Jabetzari jagokonez, Udaleko Kulturako zinegotzi delegatuak areto honen lagapena erabakiko dau egun zehatzetan, idatziaz eskatu eta gero. 15 eguneko gehieneko epe barruan iraungo dau gozamen honek, hala ere, Udalak hori onartuz gero, zabaldu daiteke epea.

Erakustaretoa erabiltzeko eskariak urrian egingo dira hurrengo urtarriletik ekainera bitarteko aldirako, eta, apirilean, hurrengo uztailetik abendura bitarteko eperako. Kultura saileko zinegotzi delegatuak, azaroan eta maiatzean adjudikatuko dauz eskari bakoitzari jagokezan hamabostaldiak, bakoitzarentzat jarritako egutegiaren arabera. Interesatuari idatziz jakinaraziko jako bere eskaria onartu egin dala. Erakustaretoa hutsik balego, geroago egindako eskariak ere hartuko lirateke, eskariaren hurrenkera gorderik beti ere.

Erabilera anitzeko aretoa erabiltzeko eskariak bi hilabetetik sei hilabetera lehenago egin beharko dira, eta eskariaren hurrenkera kontuan izanda egingo da lagapena. Aretoa hutsik balego, geroago egindako eskariak ere kontuan izango lirateke, eskariaren hurrenkera errespetatuz, beti ere.

Jagokon ekintza burutu eta gero, erabiltzaileak ebaluazio-orria bete beharko dau.

Erakustaretoa eta erabilera anitzeko aretoa erabiltzeko eskaria egiteko inprimakia, eta, baita ebaluazio-orria ere, Kultura Sailak emongo dau eta Sail horretara itzuli beharko dira beteta.

2. artikulua.— Lagapen baldintzak

1. artikulua ezarritakoaren arabera egingo da lagapena, idatzizko eskaera Kulturako zinegotzi delegatuari aurkeztu eta gero, eta, ondorengo baldintzak betez:

A) Erakustaretoa:

2.1. Arte eta kultura erakusketak, irabazteko asmo bakoak eta Kultura Sailak antolatutakoak.

Kasu honetan, Udalak lagako dau lokala. Berak zainduko dau eta jagokon publizitatea egingo.

Erakusketa honeek, irabazteko asmo bakoak izanik, erakusteko bakarrik dirala ulertuko da eta ez ezer saltzeko, beraz, ez da onartuko ezer saltzea, horrela izango balitz, erakusten dan obraren bat udalari emon beharra eukiko leukie.

2.2. Arte eta kultura erakusketak, obrak saltzeko asmoagaz.

Udalak lokala lagako dau, eta eskatzaileari jagoko berau zaintzea eta jagokon publizitatea egitea, kultura sailak emongo deutsozan kartel mutuetan. Publizitatea euskeraz izango da, edo elebidun, gitxienez, euskeraren normalkuntzarako udal ordenantzak ezarritakoaren arabera. 47.2 artikulua honela dino: «Udalaren instalakuntza eta materialak erabili ahal izateko ere, aurreko puntuan ezarritako baldintzak bete beharko dira». Hau da, 47.1 artikulua dino: «jardun subentzionatuetan argitaratzen dabezan idatzi, iragarki, ohar eta gainontzekoak, euskeraz izan beharko dira, edo derrigorrean, euskeraz eta erderaz idatzita emongo dabez ezagutzera.

(...) euskerari lehentasuna emonez, hau da, idatzizkoan hizkien tamaina bi aldiz handiagoa izango dalarik».

Laguntza behar izanez gero, euskera sailak bere itzulpen zerbitzua eskainiko deutso eskatzaileari.

Aldi berean, erakusgai jarri dan obraren bat emon beharko deutso eskatzaileak udalari eta honek inbentarioan sartuko dau eta bere kokapena zehaztuko.

Jendearentzat zabalik egoteko ordutegia kultura aretoaren funtzionamenduaren arabera izango da. Udaldian, astegun eta jai egunetan ere, 18:00etatik 22:00etarako izango da, zapatuetan, 12:00etatik 14:00etara, eta 18:00etatik 22:00etara. Neguko ordutegia (irailaren bigarren hamabostalditik hasita ekainaren amaierara arte), 18:00etatik 21:00etara asteko egun guztietan, zapatuetan, goizetan ere bai, 12:00etatik 14:00etara.

Erakustareto barruan (ez hallean) erakusketa bakoitza zabaltzen danean, lunch edo gazigarri bat egin ahal izango da. Amaitu ondoren, eskatzaileak garbitu beharko dau.

B) Erabilera anitzeko aretoa

2.3.1. Batzarrak, hitzaldiak, jardunaldiak, ikastaroak, etab., eskatzaileak, kultur, kirol, gizarte edo politika arloko taldeak diranean.

Kultur, gizarte, kirol edota hezkuntza arloko izaeradun batzar, hitzaldi, jardunaldi, ikastaro eta abar egiteko lagako da erabilera anitzeko aretoa. Batzar honeetan ez da itziko inolako produkturik saltzen. Doanik lagako da erabilera.

Kultura aretoaren funtzionamenduaren arabera zehaztuko da ordutegia. Honela, martitzenetik eguenera, ezarritako ordutegi barruan eskatu daiteke aretoa, astelehenetan eta barikuetan, 20:30etan eta 21:30etan hurrenez hurren eta zapatuetan goizez bakarrik.

Hauteskunde kanpainetan, hauteskundeetarako legeari lotuta itziko jake aretoa talde politikoei.

Publizitatea, kasu honeetan, eskatzailearen kontura joango da.

Kultura Sailak emongo deutsoen kartel mutuetan egingo da, eskatzaileak horrela eskatzen badau. Iragarkiak euskeraz izango dira, edota, ele bietan gitxienez, euskeraren normalkuntzarako udal araudiak ezarritakoa betez.

Ordenantza honen 47.2 artikulua honela dino: «Udalaren instalakuntza eta materialak erabili ahal izateko ere, aurreko puntuan ezarritako baldintzak bete beharko dira». Hau da, 47.1 artikulua dino: «jardun subentzionatueta argitaratzen dabean idatzi, iragarki, ohar eta gainontzekoak, euskeraz izan beharko dira, edo derrigorrean, euskeraz eta erderaz idatzita emongo dabez ezagutzera (...) euskerari lehentasuna emonez, hau da, idatzizkoan hizkien tamaina bi aldiz handiagoa izango dalarik». Laguntza behar izanez gero, euskera sailak bere itzulpen zerbitzua eskainiko deutso eskatzaileari.

2.3.2. Batzarrak, hitzaldiak, jardunaldiak, ikastaroak, etab. eskatzaileak enpresak diranean (sozietateak, alkarteak, fundazioak, etab.)

Enpresek (sozietate, alkarte edo fundazioak), erabilera anitzeko aretoa erabili daikie batzarrak, hitzaldiak, jardunaldiak, ikastaroak, eta abar egiteko. Aretoa erabiltzeko prezio publikoa, udaleko osoko bilkurak urtero onartzen dauzan ordenantza fiskalen araberakoa izango da.

Kultura aretoaren funtzionamenduak (zine emonaldiak) zehaztuta egongo da ordutegia. Honela, aretoa martitzenetik eguenera, ezarritako ordutegi barruan

eskatu daiteke, astelehen eta barikuetan, 20:30etan eta 21:30etan hurrenez hurren, eta zapatuetan goizez bakarrik.

Eskatzaileak egingo dau publizitatea, kultura sailak emongo deutsozan kartel mutuetan, enpresak horrela eskatzen badau. Publizitatea euskeraz izango da, edo elebidun, gitxienez, euskeraren normalkuntzarako udal ordenantzak ezarritakoaren arabera. 47.2 artikulua honela dino: «Udalaren instalakuntza eta materialak erabili ahal izateko ere, aurreko puntuan ezarritako baldintzak bete beharko dira». Hau da, 47.1 artikulua dino: «jardun subentzio-natuetan argitaratzen dabezan idatzi, iragarki, ohar eta gainontzekoak, euskeraz izan beharko dira, edo derrigorrean, euskeraz eta erderaz idatzita emongo dabez ezagutzera. (...) euskerari lehentasuna emonez, hau da, idatzizkoan hizkien tamaina bi aldiz handiagoa izango dalarik». Laguntza behar izanez gero, euskera sailak bere itzulpen zerbitzua eskainiko deutso eskatzaileari.

2.4. Kontzertuak, antzerkia, ekitaldiak

Honelako ekitaldiak antolatzen dabezan alkarte eta enpresek Kultura Batzordeari aurkeztu beharko deutsoez euren proposamenak, kasu bakoitzaren arabera lagapenaren baldintzak erabaki daizan.

Ekitaldi honeen iragarpena eskatzailearen kontura joango da.

Behar izanez gero, eta, honela eskatu, Kultura Sailak kartel mutuak emongo deutez. Iragartasuna euskeraz izango da, edo gitxienez, elebidun, euskeraren normalkuntzarako udal araudiak agintzen dauan moduan. Honen 47.2 artikulua honela dino: «Udalaren instalakuntza eta materialak erabili ahal izateko ere, aurreko puntuan ezarritako baldintzak bete beharko dira». 47.1. artikulua dino: «Jardun subentzionaletan argitaratzen dabezan idatzi, iragarki, ohar eta gainontzekoak, euskeraz izan beharko dira, edo derrigorrean, euskeraz eta erderaz idatzita emongo dabez ezagutzera (...) euskerari lehentasuna emonez, hau da, idatzizkoan hizkien tamaina bi aldiz handiagoa izango dalarik». Euskera Zerbitzuak, behar izanez gero, itzulpen laguntza emongo dau.

3. artikulua.— Udalak kultura aretoa erabiltzea

Udalak lehentasuna izango dau lokaletan, lagata euki arren, behar izanez gero, horren barri hilabete lehenago emoten badeutso eskatzaileari. Kasu honetan, ordutegietara egokitu beharko dira biak, alkarren komenientziak kontuan izanda.

4. artikulua.— Araudia indarrean egotea eta gorabeherak

Produktuen salmentarako batzarrik ez da onartuko.

Kasu guztietan, udalak zabaldu eta itzikiko dau lokala, eta udala arduratuko da honen mantenimendu eta garbiketaz.

Araudi honetan aipatutako atal barruan sartzen ez danean aretoaren erabilera, Kultura Batzordeak erabakiko dauz aretoaren era-bilera-baldintzak, Kultura saileko zinegotzi delegatuak proposatu ondoren.

Udalak eta udal aretoak, araudi honen eta egiten diran aldakuntza guztien kopiak izango dabez, interesatuei erabilerari buruzko informazioa emoteko.

Kultura saileko zinegotzi delegatuak, edota, Kultura batzordeak, sortzen dan edozein zalantza erabaki eta aretoak ondo funtzionatzeko beharrezkoak liratekeen erabakiak hartzeko ahalmena izango dabe.

Iragarki hau argitaratzen denetik hilabeteko epean, nahi diran alegazio edo iradokizunak aurkeztu ahal izateko espedientea Bermeoko udaletxean aurkituko da. Epe hau igaro ondoren, ezelako alegaziorik aurkeztuko ez balitz, behin-betikoz onartua ulertuko litzateke.

Bermeon, 2001eko maiatzaren 15ean.—Alkatea

(II-2.272)